Euskararen berri OLAtu gainean

2016ko urria ALBISTEAK

Euskaldunak aktibatzen, "Egia Euskaraz estiloa" hedatzen ari da

Euskaldunak pizteko donostiarren egitasmoak arrakasta izan duela dirudi. Donostiako Piratek eta añorgarrek kopiatu zuten, eta udazken honetan antzeko ekimenak izango dira Hernanin, Lasarte-Orian, Agurainen eta Astigarragan. Egiako egitasmoaren gisakoak, Donostiako beste auzo batzuetara ez ezik, Euskal Herriko zerbait herritan ere jarriko dira martxan.

Sustatu: http://sustatu.eus/1475223270300?utm_source=rss&utm_medium=feeds

Hizkuntza eskubideak bermatzeko 180 neurri aurkeztuko dituzte Kursaalean

Aditu batzordea arduratu da Protokoloaren koordinazioaz. Abenduaren 15ean eta 16an izango da aurkezpena.

Diario vasco:http://www.diariovasco.com/culturas/201610/09/kursaal-acogera-presentacion-medidas-20161009004432-v.html

Hizkera sexista noiz darabilgun jabetzeko eta hori saihesteko tresna

Euskarak genero-markarik ez duela eta ez dela beste hizkuntza batzuk bezain sexista esan ohi da, baina bada zer hobetu. Komunikazio inklusiborako gomendioak bildu ditu Amaia Zubietak.

Argia: http://www.argia.eus/blogak/mikel-garcia/2016/10/10/hizkera-sexista-noiz-darabilgun-jabetzeko-eta-hori-saihesteko-tresna/?utm_campaign=shareaholic&utm_medium=facebook&utm_source=socialnetwork

Fagor Automationen erronka: 2024an bilera guztiak euskaraz

Urriaren 5ean, Otaloran, MONDRAGONen Euskararen Mahai Teknikoak antolatuta, kooperatibetako euskara koordinatzaileentzako beste topaketa bat egin zen. Izan ere, Mahai Teknikoaren helburuetako bat kooperatibetako euskara eragileak heztea da, eta testuinguru horretan antolatzen dira topaketa hauek.

Lantalan: http://www.lantalan.eus/bestelakoak/fagor-automationen-erronka-2024an-bilera-guztiak-euskaraz?utm_source=feedburner&utm_medium=feed&utm_campaign=Feed%3A+LanaEuskalduntzeko+%28lana+euskalduntzeko%29

VI. Inkesta Soziolinguistikoaren EAEko emaitzak - Patxi Baztarrika

VI. Inkesta Soziolinguistikoaren EAEko emaitzak aurkeztu dituzte.Hona hemen Patxi Baztarrikaren hitzak.

Sustatu: http://sustatu.eus/1476558577280?utm_source=rss&utm_medium=feeds

"Indiferentziak hiltzen ditu hizkuntzak, ez hizkuntzaren etsaiek"

Bartzelonako Unibertsitateko Carme Junyentek hitzaldi bat eskaini zuen Euskal Herriko Unibertsitateko Humanitateen Fakultatean, Oihaneder Euskararen Etxearen Hitz adina mintzo zikloaren aurkezpenaren barnean.

Argia: http://www.argia.eus/albistea/indifference-kills-languages-not-languages-enemies

Nafar Hegoaldeko uzta euskarari puzka' leloa duen Errigoraren kanpaina aurkeztu dute

Arrasaten aurkeztu dute Errigoraren aurtengo kanpaina. Euskal Herri osoko eta bereziki Debagoieneko hainbat elkartetako lagunak bildu dira kanpainaren berri eman eta saskiak gertatzeko. Azaroaren 19a bitartean egin daitezke eskaerak.

Goiena: http://goiena.eus/debagoiena/1477234524911